

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GAUBEAKO UDALA

#### Hasierako onespena ematea jaiotzak eta erroldatzeak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzari

Inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero Gaubean jaiotzak eta erroldatzeak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzari hasierako onespena ematen dion udalbatzaren erabakia jendaurrean egon den bitartean, behin betiko onartzen da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Era berean, lege horren 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, ordenantza horren testu osoa ematen da argitara, guztiek jakin dezaten.

#### 1. artikulua. Helburua

Gaubeako Udalak jaiotzak eta erroldatzeak sustatzeko emango dituen dirulaguntzen baldintzak eta lege araubidea arautzea da ordenantza honen helburua.

#### 2. artikulua. Onuradunak

Ordenantza honetan biltzen diren dirulaguntzak jaso ahal izateko, gurasoek udalerrri honetan egon beharko dute erroldatuta, eta bertan benetan bizi, umea jaio baino 2 urte lehenagotik gutxienez (behintzat gurasoetako bat).

Betekizun hori, gutxienez, gurasoetako batek bete beharko du eta hala betetzen jarraitu beharko du jaio ondorengo hurrengo hiru urteetan.

#### 3. artikulua. Jaiotzea

Jaiotze bakoitzak dagokion dirulaguntza jasotzeko eskubidea emango du.

Erditze anitzeko kasuetan, jaio den ume bakoitzeko, dagokion dirulaguntza emango da.

Seme-alaba bat adoptatuz gero, ordenantza honek jasotako dirulaguntza eskuratu ahal izango da, baldin eta umeak urte bi baino gutxiago bazuen adoptatu zutenean.

#### 4. artikulua. Erroldatzea

Ordenantza honek jasotako dirulaguntzak eskuratzeko, gurasoetako batek nahitaez egon behar du udalerrri honetan erroldatuta, eta bertan benetan bizi, 2 urte lehenagotik eta ondorengo hiru urteetan gutxienez.

Halaber, umea edo umeak jaiotzen diren unean udalerrrian erroldatuta egon beharko du eta benetan bertan bizi.

Adopzioetan aurreko gutxienekoak kontatzeko adingabea Erregistro Zibilean inskribatzen den eguna hartuko da kontuan.

#### 5. artikulua. Zenbatekoak

Hona hemen dirulaguntzen zenbatekoak:

Jaiotako umeko: 2.500 euro.

Ordainketa bakarra egingo da, ebazpena jakinarazi eta bi hilabete igaro baino lehen.

**6. artikulua. Betebehar ekonomikoak egunean edukitzea**

Bai gurasoek baita haur jaioberriek ere egunean eduki beharko dituzte beren betebehar ekonomikoak eta administratiboak, udalerrri honetako ogasunari dagokionez, dirulaguntza jasotzen duten unean.

**7. artikulua. Dirulaguntza ordaintzeko prozedura**

Eskaera Gaubeako Udalean aurkeztu beharko da hilabeteko epean, gehienez ere, umearen jaiotegunetik kontatzen hasita edo adopzioaren ebazpen egunetik kontatzen hasita.

Bi gurasoek sinatu beharko dute dirulaguntza eskaera. Guraso bakarreko familiei gagozkiela nahikoa izango da jaioberriaren familia kidea denak izenpetzea eskaera.

Eskaera horrekin batera dirulaguntzaren xede den ume edo umeen jaiotza ziurtagiria aurkeztuko da.

Bestalde, Gaubeako Udalari jakinarazi beharko diote helburu berari begirako dirulaguntzarik eta laguntzarik eskuratu duten ala ez, laguntza eman duen administrazioa edo erakundea, publikoa edo pribatua, edozein izanagatik ere.

Espedientea izapidetzen den bitartean, udal administrazio zerbitzuek ofizios jasoko dituzte, eskatzaileen baimenarekin, honako hauek ziurtatzen dituzten agiriak:

– Gurasoak udalerrian erroldatuta daudela eta bertan benetan bizi direla ziurtatzen duen agiria, baita udal honetan alta emanda daudela dioena ere.

– Dirulaguntzaren xede den umea edo umeak udalerrian erroldatuta daudela eta bertan benetan bizi direla ziurtatzen duen agiria.

– Nola gurasoek hala ume jaioberriek udal honetako zerga eta administrazio betebeharrak egunean dituztela ziurtatzen duen agiria; edo edozein arrazoi dela eta, udalerrri honetako ogasunaren betebeharrak egunean ez dituztela ziurtatzen duena.

– Familia unitateak jaiotza edo adopzioa gertatu aurreko ekitaldian jasotako diru sarrerei buruzko aitortpena. Agiri hori aurkeztu ezean, 35.000,00 eurotik gorako errentak aitortzen direla ulertuko da.

Udalari ez bazaio baimenik ematen aipatutako agiriak ofizios jasotzeko, eskatzaileek aurkeztu beharko dituzte. Eskatutako agiriak aurkezten ez bada, ukatu egingo da egindako eskaera.

Behin espedientea osatu eta aztertu beharreko txostenak aztertu ondoren, udalbatzak jorratuko du.

Udalbatzak ebatziko du dirulaguntza eman ala ez. Dirulaguntza emango da, baldin eta gurasoek eta ume jaioberriek udal honetako betebehar guztiak egunean badituzte; hau da, betebehar horiek egunean izan beharko dituzte, dirulaguntza kobratu orduko. Dirulaguntza ordaindu orduko, ordenantza honetan jasotako baldintzak betetzea bermatzen duen beste edozein gorabeheraren berri eman ahal izango da, dirulaguntza jaso ahal izateko eta iruzurrik zein gehiegikeriarik ez egiteko.

Deialdia ebatzi ondorengo lehen ordainketa multzoarekin batera ordainduko da onartutako dirulaguntza.

**8. artikulua. Betebeharrak ez betetzea**

Ordenantza honek jasotako betebeharren bat betetzen ez bada, isuna jarriko da, eta isun hori emandako dirulaguntzaren halako bi izango da.

Isun hori administrazio espediente bidez izapidetuko da. Dena den, alde zuzenetik, interesdunei entzungo zaie zer esaten duten beren defentsan.

**9. artikulua. Lege araubidea**

Ordenantza honetan berriaz xedatu ez den guztirako, toki erakundeei aplikagarri zaien toki araubidearen eta administrazio prozeduraren legeria aplikatuko da.

Azken xedapena

Ordenantza hau 2019ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Gaubea, 2019ko uztailaren 1a

*Alkate-lehendakaria*

*JUAN CARLOS RAMÍREZ-ESCUDERO ISUSI*